# FUNTSEZKO JARDUERAK

- Jarduera garrantzitsuena eta gure proiektua mantentzen duena, irakasle edo kolaboratzaileek klase ematea da. Gure afiliatuen **zerbitzuak erabilgarri egongo dira aste barruko egun guztietan zehar.** Gure kalkuluen arabera, irakasle bakoitzak 200 euro irabazi beharko lituzke klaseak soilik emanez era guztitako konbinazioak eginez eguneko; 8 bikote, lau 5eko talde... Konbinazioak zuzendaritzako kideok orekatuko ditugu. Kontua da 200 euro horietatik 9 euro informatikoarentzat desbideratuko direla (9 euro informatiko bakoitzarentzat X 20 irakasle=180 euro egunean informatikoei). Halaxe, ogasun sailari %45a ordaindu arren, gure enpresaren informatiko eta irakasleek bi mila euro hilean irabazten jarraituko lukete. Irakasleen ordutegiak eta bezero posibleak kudeatzeko hurrengo ordutegia prestatu dugu:

| | Astelehena | Asteartea | Asteazkena | Osteguna | Ostirala |
|---|---|---|---|---|---|
| 8:00-16:00 | Unibertsitateko ikasle batzuk bakarrik izango dute libre | Unibertsitateko ikasle batzuk bakarrik izango dute libre | Unibertsitateko ikasle batzuk bakarrik izango dute libre | Unibertsitateko ikasle batzuk bakarrik izango dute libre | Unibertsitateko ikasle batzuk bakarrik izango dute libre |
| 16:00-16:55 | Edozein ikasle mota etorri ahalko da | Edozein ikasle mota etorri ahalko da | Edozein ikasle mota etorri ahalko da | Edozein ikasle mota etorri ahalko da | Edozein ikasle mota etorri ahalko da |
| 16:55-17:50 | Edozein ikasle mota etorri ahalko da | Edozein ikasle mota etorri ahalko da | Edozein ikasle mota etorri ahalko da | Edozein ikasle mota etorri ahalko da | Edozein ikasle mota etorri ahalko da |
| 17:50-18:45 | Edozein ikasle mota etorri ahalko da | Edozein ikasle mota etorri ahalko da | Edozein ikasle mota etorri ahalko da | Edozein ikasle mota etorri ahalko da | Edozein ikasle mota etorri ahalko da |
| 18:45-19:40 | Edozein ikasle mota etorri ahalko da | Edozein ikasle mota etorri ahalko da | Edozein ikasle mota etorri ahalko da | Edozein ikasle mota etorri ahalko da | Edozein ikasle mota etorri ahalko da |
| 19:40-20:35 | Edozein ikasle mota etorri ahalko da | Edozein ikasle mota etorri ahalko da | Edozein ikasle mota etorri ahalko da | Edozein ikasle mota etorri ahalko da | Edozein ikasle mota etorri ahalko da |

- Webgunea sortzea, mantentzea eta produktu saltzaileekin erlazioa mantentzea. Bi jarduera hauek, berebiziko garrantzia dute gure enpresarentzat, bestela ezingo genukeelako irakasle eta familiekin feedback-a mantendu eta iragarki gabe, irakasleen metodoa ez badabil ondo, informatikoei (langileei) ordaintzea zailagoa egingo litzaiguke. Ordainketak egitean guk bitartekari lana egin beharko genuke. Lehen puntuan azaldu den bezala, asmoa irakasleen ehuneko txiki bat erabiliz pare bat informatikariri ordaintzea da halaxe langile eta kolaboratzaileak pozik izango baititugu. Halere, puntu hau gehitu diogu enpresari irabazi extra batzuk izateko (salbu konduktua edo dena delakoa) edota A planak akatsen bat izan ezkero, irakasle eta informatikarientzat ordainketa metodo desberdin bat izateko eta hauek eskegita ez geratzeko.

- Familiak eta irakasleak atenditu eta beraien eskariak betetzea. Jarduera hau, ez ohikoagoa izan daitekeen arren, oso inportantea da **bezeroek (ikasleek) izan ditzaketen arazo edota konponbideei arreta erreparatzea.** Demagun ikasle batek aukeratutako irakaslearekin arazoren bat duela, ba guk (enpresaburuek) lagundu beharko genioke eta ordezko irakasleren bat edo beste aukeraren bat bilatu; zerbitzu bera eta antzeko prezioan eskainiz, noski. Gauza berbera egin beharko genuke irakasle eta bere arazoekin. Orokorrean, kudeaketa lana baino ez genuke egin beharko.

- Marketing-kanpainia. Jarduera hau oso inportantea izango da enpresaren hasieran bereziki. Gure enpresa, webgune edo sare sozial desberdinetan iragarri beharko dugu gure enpresa; Instagram, Facebook, Twitter eta halakoetan kontu bat irekiko dugu gure proiektua azalduz eta bezero posibleei eskainiz. Gainera, kalean, hala nola metroan, eta ikasketa zentroetan eskegi beharko ditugu enpresaren kartelak nortzuk garen azaldu, kontaktu bat eskainiz, webgunerako esteka konpartituz... Harrigarria izan daitekeen arren**, agian garrantzitsuagoa da marketin fisikoa soziala baino izan ere, guraso askorengana heltzen bagara, hauek ume asko ekarriko dituzte gurekin ikastera.**